



«Munduko onenen artean onenak dira, maila ikaragarria izango da»

TOLOSA ▶ Etzi Usabalen jokatu den 18. Abesbatzen Europako Sari Nagusia izan du hizpide Ana Arretxe TEEko lehendakariak

ORDEZKARIAK ▶ AEBetako, Hungariako, Turkiako eta Norvegiako haur eta helduen bost abesbatza lehiatuko dira, 17:00etan ▶ 2-3

Bertsoak osatzen, Zazpi Astoren Gainean

ALEGIA ▶ Bere lehen denboraldia egin du Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak; zortzi kideak kontu kontari aritu dira HITZArekin ▶ 5

IBARRA ▶

'Herri bat,
Gaztetxe
bat' aldarri,
ate joka dira
Gazte Festak


Bihar arratsaldean
botako dute
txupinazoa; igandera
arte iraungo du
jaien 36. edizioak ▶ 6

ARESO ▶

Nafarroako
Gobernuak
irakasle bat
kendu nahi
du eskolan

Erabakia gaitzetsi eta
hezkuntza kalitatea
«arriskuan» legokeela
salatu du eskolako
Kontseiluak ▶ 7

N. URBIZU



Harpidedunen txokoa

**Aisialdi planik ez duzula?
HITZAK aukera paregabea emango dizu**

1 Bidaia zoragarri bat Tenerifera 2 lagunentzat
2 Luxuzko otordu berezia Tolosako Zumeta Jatetxean

Ez galdu aukera! Egin zaitetz harpidedun ordaintzaile!

PARTE HARTZEKO:
Maiatzaren 30etik ekainaren 25era argitaratzen diren boko hauetako bat, zure datuekin bete eta bidali ondoko helbide honetara. **Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza • Araba etorb, 5 • TOLOSA**
Ekainaren 26an irabazlearen izena HITZAn **ZORTE ON!**

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

1 TENERIFERA BIDAIA
2 lagunentzat astebeteko egonaldia

LAUTREK
bidaia agentzia

korreo kalea, 52 • TOLOSA
Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21
Faxa: 943 67 39 12
zure neurriak bidaliak antolatzen ditugu

2 OTORDU EDERRA
2 lagunentzako
Tolosako Zumeta jatetxean

Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa
Tel.: 943 88 28 93

bete zure datuak

Harpidedunaren kodea.....

Izena.....

Abizenak.....

Helbidea.....

Herria.....P.K.....

Telefonoa.....

Pelektronikoa.....

KULTURA ▶

Ahots goxoenak gurean

Munduko abesbatzarik onenak lehiatuko dira, etzi, larunbata, Usabal kiroldegian, 17:00etatik aurrera, 18. Abesbatzen Europako Sari Nagusian



Cantemus Children's Choir talde hungariarrak parte hartuko du, etzi, 18. Abesbatzen Europako Sari Nagusian. HITZA

ESTI EZEIZA

Larunbatean, Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE) antolatuta, munduko abesbatzarik onenak lehiatuko dira Usabalen. Arratsaldeko bostetatik aurrera, XVIII. Abesbatzen Europako Sari Nagusia izango da lehian, Tolosan. Ikuskizun berezi honetan, bost abesbatza entzun ahal izango dira.

Partaideen lana epaitzen duten pertsona famatuak ospeagatik eta aukeratutako abesbatzen kalitateagatik, beraien garrantziagatik ezagunak diren sei Nazioarteko Abesbatza Lehiaketek antolatzen dute

Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusia. Nahiz eta sei norgehiagoka izan, hauetako batzuk bi urtez behin jokatzeko dira, horregatik, larunbateko Sari Nagusian bost taldek bakarrik hartuko dute parte. Hauek dira Usabal kiroldegian entzun ahal izango diren abesbatzak:

UNIVERSITY OF UTAH SINGERS

Salt Lake City (AEB). 25 emakumez eta 20 gizonaz osatutako talde hau duela gutxi Brady Allred bere oraingo zuzendariak sortu zuen. Berehala eskualdean ospe ona lortu zu-

ten, besteak beste, Olene Walker Gobernadorearen postu berriaz jabetzeko ekitaldian abestu zuten, baita 2004an Utah estatuko senatuaren irekiera saioan. 2005ean Tourseko Florilege Vocaleko nazioarteko abesbatza lehiaketako Sari Nagusia lortu zuten taldeak. Honez gain, egitarau libreko mailan lehenengo saria irabazi zuten; ahots nahasietan bigarrena; DROSanden olerki batean oinarritutako berpizkunde obra baten interpretazio onenari Ronsard saria. Baita, lehiaketan zehar, Franziaz ahoskera onenaren A Coeur Joie International saria ere,

eta Oeuvre de Creation saria estreinaldiko obra onengatik.

BILKENT UNIVERSITY YOUTH CHOIR

Ankara (Turkia). Musika eta Arte Fakultateak eratu zuten abesbatza 1986an. Musika espezialitate desberdinetako ikasleaz osatuta dago, eta 20 emakume eta 18 gizon dira. Zuzendari lanetan emakume bat dihardu: Elena Pushkova. Abesbatzak erreperitorio antza du, madrigaletatik gaurko musikagileetaraino, Turkiako konpositoreen lanei arreta berezia eskainiz. 2003an, Turkiako Abesbatzen Elkarte sari

handia jaso zuten. 2005eko maiatzean Varnako (Bulgaria) Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa lortu zuen 18. Europako Abesbatza Kantuaren Sari Nagusian parte hartzeko eskubidea.

VICTORIA CHAMBER CHOIR

Budapest (Hungaria). 1998. urtean sortu zen abesbatza, eta Miklos Cser Pecseko Antzoki Nazionalako egungo zuzendaria abesbatza zuzentzera gonbidatua izan zen. XVI. mendeko Tomas Luis de Victoria konpositore handiarengandik hartzen du izena abesbatzak, bere heriotzaren urteurrena ospatzen zen urtean eta 10 gizonaz eta 10 emakumez osaturik dago. Zuzendari, berriz, Adam Cser dute. 2005. urtean Gorizian (Italia) Polifonik lehen saria eta Egitarau Polikoralan bigarren saria irabazi zituen.

CANTEMUS CHILDREN'S CHOIR

Nyiregyhaza (Hungaria). Zoltan Kodaly Lehen Hezkuntzako Eskolako abesbatzen artean, Cantemus da abeslari gehien dituen eta sari gehienak lortu dituen. Taldea 46 neskaz osatuta dago, eta mundu osoan zehar bidaia egin ditu. Zuzendari asko izan ditu taldeak ibilbide honetan zehar, eta orain Denes Szabok zuzentzen du abesbatza. 2005ean, Concorso Polifonico Guido d'Arezzo (Italia) Sari Nagusia irabazi zuten, eta 18. Europako Abesbatza Kantuko Sari Nagusian parte hartzeko eskubidea lortu zuten hala.

SCHOLA CANTORUM

Oslo (Norvegia). Osloko Unibertsitateko Musikologiako Fakultateko ganbara abesbatza da, eta Knut Nystedt zuzendari eta musikagile ospetsuak eratu zuten, 1964an. Hasieran abesbatza Unibertsitateko ikasle bakarrik osatua zegoen, baina gaur egun 32 abeslarietako batzuk, 18 emakume eta 14 gizon, ikasleak dira; besteak, berriz, jatorri desberdinekoak. Norvegiar erreperitorioak bai folklorean bai musika garaikidean abesbatzen zati garrantzitsu bat betetzen du. Joan den urtean, bere 40. urteurrena zela eta, eskandinaviar plataforma irtenbide bila ari da geroztik. Orain Udalak proiektu berri bat aurkeztu du. Zein iritzi duzu guztiaren inguruan?». Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia.

badugu GILTZA, badugu HITZA



Giltza entregatzeko lekuak.

- ▶ ANOETA Izarti Txokolategia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia
- ▶ LEITZA HITZAren egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAren egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Etxebizitza salgai, Berrobin. 29 milioi eta erdi pezeta. Negoziagarria. Interesatuak deitu 618 83 32 56 telefono zenbakira.

OPARITZEKO


Txakurkumea. Arratoi zakurak oparitzen dira. Interesatuak deitu 618 25 49 71 telefono zenbakira.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Urtebete pasatxo igaro da Tolosako Gerontologikoa itxi zutenetik. Gerontologikoa aldea gerontologikoa irtenbide bila ari da geroztik. Orain Udalak proiektu berri bat aurkeztu du. Zein iritzi duzu guztiaren inguruan?». Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia.

ANA ARRETXE ▶ TEE-KO LEHENDAKARIA

«Abesbatzen egitaraua zaila den arren entzuteko oso atsegina izango da»



ESTI EZEIZA

N. Lataburu ▶ Sei urtez behin Tolosak 18. Abesbatzen Europako Sari Nagusia hartzen du. Ana Arretxerentzat lehen aldia izango da TEEko lehendakaria bezala, 1994an eta 2000an ere bizitu baitzuen Lehiaketaren bizitasuna. Bere lan taldearen lana eskertu du. «Oraingoa sprint finala baino ez da, urtebeteko lana dago atzetik».

Europako bost abesbatza onenak bilduko ditu Tolosak. Europako baino munduko esango nuke; izan ere, Europako Lehiaketako irabazleak diren arren, mundu osoko abesbatzek hartzen dute parte. Estatu Batuetako abesbatza da adibiderik argiena.

Maila altua ziurtatuta dago, beraz.

Pentsa munduko onenen artean onenak direla; beraz, maila ikaragarria izango da. Dena den, aipatu behar dut egitaraua oso atsegina dela eta abesti zailak aukeratu dituzten arren, entzuterrazak izango direla eta entzuleek gozatzeko aukera izango dutela.

Leidor aretoaren inaugurazioak azkenik ez ditu pentsatutako epeak bete.

Ez, pena handia da; izan ere, Abesbatzen Lehiaketa sakrifikatu behar izan genuen Sari Nagusia bertan izan zedin; hatik, ezin gara horretan pentsatzen geratu. Azkenean ez da bertan egiterik izan, baina Usabalen ere ongi aterako da gutzia, ziur.

Abesbatzak gustura geratu ziren, bederen, Abesbatzen Lehiaketan.

Bai, Usabalgo akustika egokia

izan zen abesteko nahiz entzuteko, Leidor zaharrea zegoena baino askoz hobea da.

Nola garatuko da Lehiaketa? Aurkezpenaren ostean hiru abesbatza ariko dira; ondoren, atsedenditxo bat izango da eta falta diren beste bi abesbatzen txanda izango da. Amaitzerakoan, epaimahaia irabazle bakarren izena emanango du jakitera. Lau orduko iraupena izatea espero dugu.

Nola dago osatua epaimahaia?

Guztira zazpi dira ordezkariak, lehiaketa bakoitzeko bat eta guk aukeratutako beste bat: Lehendakaria izango den Jordi Casas kataluniarra, Mauro Chiocci italiarra, Mari Chonev bulgariarra, Roberto Gabbiani italiarra, Richard Safir frantziarra, Javier Busto euskalduna eta Mate Szabo Sipos hungariarra.

Herrialde hauetako ordezkariak izango dira, orduan, gu-rean.

Abesbatza bakoitzeko ardura-dunekin batera, herrialde horretako ordezkariak eta ikus-entzuleak izango dira.

Izen handia du Sariak.

Bai, aipatzekoa da, besteak beste, Europako Legebiltzarreko Goi Babesa jaso dugula.

Usabal betetzea espero al duzue?

Oraindik sarrera batzuk salgai daude, baina egunean bertan salduko direla uste dugu. Behintzat, abesbatzen zale direnek orain izango dute aukera musika onarekin gozatzeko, sei urtez behin antolatzen den ekimena baita honakoa. ◀

HEZKUNTZA ▶



Ikasle izatetik, lan mundura igarotzeko prest

Esti Ezeiza ▶ Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuko 120 ikasle inguruk lan munduan trebatu ahal izateko agiriak jaso zituzten atzo goizean. Irudian ikusi daitekeen bezala, ikasleak taldez talde tituluak jasotzen joan zi-

ren, ikaskideen txaloak jasoz. Agiriari gain, ziklo bakoitzeko ikasle onenari MP3 bat oparitu zioten, Jesus Arregi zuzendariaren eskutik. Ekitaldiaren ondoren, tituludunek hamaiketako izan zuten eguna ospatzeko. E. EZEIZA

GIZARTEA ▶



25 urte beranduago... berriro elkarrekin

Erredakzioa ▶ 1980-81eko denboraldian Tolosako infantil mailako jokalariek izandakoan berriro ere elkartu ziren, pasa den hilabetearen amaieran, Gure Kaiola elkartearen. 25 urte igaro dira ordutik eta makina bat garaipen ditu taldeak bizkar gainean. Besteak beste, Gipuzkoako eta Euskadiko irabazleak izatera heldu ziren, eta Osasunaren aurka Espainiako Txapelketako finala jokatu zuten. HITZA

FELIX IRAZUSTABARRENA ▶ GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEKO LEHENDAKARIA

«Beste hedabideetan ez dagoen gertuko informazioa jasotzen duzu»

HITZAK gizartean betetzen duen papera azpimarratu du alegiarrak

NEREA URBIZU

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko lehendakaria da Felix Irazustabarrena alegiarrak. HITZAK gizartean betetzen duen papera azpimarratu du, eta euskara gehiago gizarteratzeko garrantzitsutzat jotzen du.

Nola ezagutu zenuen HITZA?

Hasieratik proiektuaren lehen pausoetan egon naiz, bilera eta deialdietara joan nintzen. Beraz, egunkaria etxeetara ailegatu aurretik ezagutzen nuen HITZA.

Garestia iruditzen al zaizu kuota?

Ez dakit ezta zenbat den ere... 50 euro urtean ez da asko. Mer-

kea dela iruditzen zait. Laguntzen den proiektu bat da.

Zergatik harpidedun ordaintzaile izan?

Gertuko informazioa jasotzen dugu, etxera eramaten digute. Erosoa da, eta nolabait hori ordaindu beharreko lan bat da.

Zein funtzio betetzen du HITZAK gizartean, zure ustez?

Euskaraz egiten da, eta euskara gehiago gizarteratzeko inportantea da. Euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duenak interesatzen zaion informazioa euskaraz jasoz gero errazagoa da. Beste egunkarietan jartzen ez duena jasotzen du.

Zerbait aldatuko al zenuke?

Badakigu Tolosaldeko euska-



N. URBIZU

rak ez duela bereizgarri nabaririk, baina *Berria* egunkariarekin ez dago alderik. Agian, hemengo euskalkiari leku gehiago egin beharko litzaioke. Horretarako tresna izan daiteke.

ANOETA ▶ JAIK

Eztanda egin du suziriak

Atzoko txupinazoaren ondoren igandera arte izango dute festa giroa anoetarrek

IMANOL GARCIA

Aurreko asteburuan ekitaldi ugari izan baziren ere, atzo izan zen festen hasiera. Igandera arte aspertzeko aukerarik ez dute izango anoetarrek. Azken bi urteetan bezala, aurten ere bi txupinazo bota zituzten. Alde batetik, Udalak antolatutakoa, eta bestea, herriko zenbait eragileek antolatutako Herri Borondatearen Aldeko Jaietakoa.

Kukuak kanpai hotsekin zeharkatu zuen plaza, danborradarako prest zeuden haurrek zain zituela. Txalapariek eman zioten jarraipena ekitaldiari eta, Fidel Azpiroz alkateak txupinazoa bota ondoren, haurrek indarrez ekin zioten danborrak jotzeari. Sardina jatearekin amaitu zen eguneko ekitaldi nagusia.

Txosnetan egin zuten beste txupinazoa. Txalapartarien agurraren ondoren, pregoian «Udalak herritarren borondatea ukatzen duela» salatu zuten herriko eragileek eta ondoren plazara abiatu ziren manifestazioa eginez eta Udalari «konponbidea» eskatuz.

Haurrak protagonista

Gaur, Korpus Eguna, haurrek dira protagonista. Udalak antolatutako egitarauan, esaterako, ume eta gatetxoentzako parkea izango da goiz eta arratsaldean. Herri Borondatearen Aldeko Jaietan Mozorro Eguna egingo dute, eta Patxin eta Potxin pailazoaren ondoren, mozo-
roen desfilea egingo dute.



Txupinazoaren ondorengo danborradan haurrek gozatu zuten burrunba ateratzen. I. GARCIA



Herritar ugari bildu ziren txosnetan egindako txupinazora. I. GARCIA

PILOTA ▶

Finalerdiak jokoan gaur HITZA Txapelketan

ERREDAKZIOA

III. HITZA Txapelketaren baitan zenbait finalerdi jokatuak dituzte gaur Beotibar pilotalekuan. 18:30ean hasiko dira partidak. Jubenil mailakoak neurtuko dira lehenengo. Garrantza-Beroiz eta Yoldi-Linzoin bikoteek jokatu dute elkarren aurka. Ondoren, 22 urte azpikoen mailan, Azpiazu-Azpiazu eta R. Uriarte-Iza bikoteen txanda izango da. Azkenik, senior mailan dabilztan beste bi bikotek hartuko dute parte: Erroizenea-Apraiz eta M. Gonzalez-J. Bengoetxea.

VILLABONA ▶

Santio jaietako areto futboleko txapelketa abian da

ERREDAKZIOA

Santio jaietako areto futboleko txapelketaren partidak hasi dira jokatzeko Errebote plazan, Onddok antolatuta. Guztira, 14 talde ari dira, bi multzotan banatuta. Partidak normalean 18:30ean hasten dira eta astelehenetan, astezkenetan eta ostiraletan jokatzen dira. Txapelketa Santio jaien baitan jakingo da.

ALEGIA ▶ BERTSOLARITZA

Zortzi astoren gainean

Ikaskuntza autodidaktan oinarria duen bertso eskola gazteak bere lehenengo denboraldia egin du, gogotsu doazen zortzi bat lagunek osatuta



Iñaki Sarasola, Iñaki Olano, Felix eta Imanol Irazustabarrena, Mikel Artola eta Imanol Aizpurua. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Zazpi Astoren Gainean, kantu euskaldun zaharra izateaz gain, Alegiako Bertso Eskola gaztea dugu. Astero-astero bildu egiten dira Intxurre Elkartearen, zortziko lagun talde bat. Adin ezberdinetakoak dira bertsozaleak, 12 urtetik hasita 35 urte bitartekoak, gutxi gorabehera.

Irakasle lanetan ez dute pertsona bakarra, denen artean antolatzen baitute klase ordua. Aste batean bat, bestean beste bat. Modu batean, autodidaktak direla esan daiteke, ez baitago haien artean bertsolari profesionalik. Badute, hala ere, bertsolari gustukoena, ahobatez esaten dutena: Egaña. Iturriaga ere aipatu zuten.

Bertsolaritza horren gustuko izanik, ez dute helburu bertsolaritza ikastea soilik; izan ere, bertso afariak eta jai bereziak egitea haien xedeen barne dago ere. Alegiako Lehenengo Bertso Paper Lehiaketa ere antolatu dute.

Eskolaren sorrera

Lehenengo urteko irailan eta urriaren bitartean hasi ziren biltzen. «Bertsoekiko zaletasuna beti egon da hemen: era ez



Margaritarena egiten dute, bertsoaren errimak idazteko. N. URBIZU

formal batean egiten genituen bertsoak. Askotan parrandatan botatzen genituen, herriko festetan bertso saioak ere egiten genituen...».

Erdi brometan aritzen ziren, hortaz, baina Felix Irazustabarrena alegiarrak eskola bat egiteko animatu zituen batzuk. Esan, eta egin. Imanol Irazustabarrena, Imanol Aizpurua, Mikel Artola, Iñaki Olano (Altzoko), Iñaki Sarasola, Joseba Otegi, Beñat Garmendia, Iker Iriarte eta Felix Irazustabarrena dira ia astero Intxurre Elkar-

tera bertsoak egiten ikastera joaten direnak.

Zazpi Astoren Gainean izena berezia irudituko zaio askori bertso eskola bati jartzeko, baina badu bere azalpena. Duela urte asko jendea ere bildu egiten zen, bertsoan ikasteko, eta izen hori zeukan. Alegian ohitura bat omen dago: baten bat bertsoan hasten denean, eta bertsoaren bukaera ateratzen ez zaionean, edo nola bukatu ez dakienean, «zazpi astoren gainean» esaldia abesten du, eta hala barreak hasten dira.

«Neskarik ez dugu bertso eskolan, eta ez da arrunta ere, festetan, adibidez, zaletasuna ikusten delako, bertso afarietara ere batzuk etortzen direlako... Hurrengo urtean agian baten bat animatuko da», zioten bertso ikasleek. Haien helburua bertsoan ikastea bada ere, barre egiteko, elkarrekin ondo pasatzeko eta, aldi berean, ikasteko ere biltzen dira ikasleak. Udan ez dira elkartuko, baina hurrengo ikasturtean jarraituko dutela argi daukate guztiek.

Metodologia

Materiala lortzeko Internet erabiltzen dute, eta gehienetan Bertsozaleen Elkarteak dauzkan jokuak, besteak beste. «Felix Irazustabarrena ere arikerik pasatu egiten ditu, eta horretaz ere baliatzen gara».

Hala ere, «bertsoak nola egiten diren ikasteko, ez dago inprobisazioa bezalakorik», eta hori egiten dute gehienbat: teoria gutxi, asko abestu eta ahozko ariketak, ia bat-batekoak.

Margaritarena egiten dute hasi aurretik, hau da; lore bat marrazten dute, eta aurretik emandako hitz modeloekin errima osatzen dituzten hitz guztiak petalo ezberdinetan idazten dituzte: gaika loturik badaude petalo batean, edo gehien erabiliko direnak erdian, aditzak beste batean... Gero, txandaka, aurretik zehaztutako doinuarekin bertsoa osatzen doaz; margaritan dauden hitzak kontuan hartzen dituzte.

Halaxe egin zuten HITZArako bertsoa —neurri bereziarekin, Betroitarena—: *Bertso eskolan jarri / digute baldintza: / HITZAi bertsoa jartzen / hemen gabilta / nahiz ta ez dagoen erraz / gaurkoan ekintza / ahorraino ekarri / beharko da hitza. / Denak ozen mintza, / euskara bizitza!! / Hizkuntza da giltza, / aukera anitza; / euskara ta kultura / uztartuz HITZA.*

Haien azterketa Alegiako festetan egingo duten saioa izango da, herriko gazteek antolatutako jaien egitarauaren barruan. Boulebardean egingo dute.

Urtean zehar trebezia hartu dutela argi daukate. Ez dute ziurtatu, baina baliteke bertsoak Zazpi Astoren Gainean esal-diarekin ez bukatzea...

ORENDAIN ▶

Artikulazioen gaineko hitzaldia, adinekoentzat

Gaur, 16:00etan, Orendaingo Erretore Etxean, *Nola eraman artikulazioen higadura* gaia jorratuko duen hitzaldia izango da. Kutxak laguntzen du antolakuntzan. Adineko pertsonen zuzendutakoa da batik bat. Artrosia, gaixotasun erreumatologikoak, sintomak, mugikortasuna eta malgutasuna gehitzeko ariketak eta hezur giharretako beste hainbat arazoez ariko dira.

BIDEGOIAN ▶

KZguneko tutorearen bisita jasoko dute

KZguneko tutorearen bisita izango da gaur Bidegoianen, 09:00etatik 13:00etara. KZgunearen inguruko edozein zalantza argituko du, baina ez informatikakoak. Hurrengo bisita hilaren 29an izango da, 16:00etan.

ALEGIA ▶

Jubilatuei eskainitako emanaldia

Bihar, Alegiako San Joan eskolako 4 eta 5 urtekoak eta 1. eta 2. mailako ikasleak Alegiako jubilatuen egoitzan emanalditxo eskainiko die jubilatuei guztiei. 11:30etik aurrera izango da. Jaz hasi ziren aiton-amonekin harremanak hobetzeko eta sendotzeko eskolan ikasitako kantak eta dantzak eskaintzen. Beraz, herriko jubilatuei guztiak gonbidatuta daude.

ALTZO ▶

Eskolan ekitaldi bereziak izango dira gaur

Gaur, 10:30etik aurrera, Altzoko eskolara Alegiako ikasle batzuk joango dira: Nolega taldearen barruan egonik, euskara ahoz nola erabiltzen den ikusteko eta hura hobetzeko helburua du ekimenak. Alegiakoak izango dira gaur abeslariak eta bertsolariak. Atzo, berriaz, aldierantz egin zuten: Altzoko eskolakoak Alegiako Kultur Etxera joan ziren prestatutakoa eskaintzera.

BERASTEGI ▶

Odola emateko aukera eskolan, asteartean

Asteartean, hilaren 20an, Berastegiko eskolan, odola emateko aukera izango da, 18:30etik aurrera.

IBARRA ▶

Sanbartolomeak antolatzen bilera asteartean

Datorren asteartean, San Bartolome jaiak antolatzen jarraitzeko Festa Batzordearen bilkura egingo dute, 20:00etan, udalbatzar aretoan. Jaiak antolaketan parte hartu nahi dutenei bertaratzeko gonbita egiten zaie.

IBARRA ▶

Patinaia ikastaroa antolatu dute

Uda 2006 kanpainaren baitan, Belabieta kiroldegia Uzturpe Jockey taldearen laguntzarekin patinaia ikastaroa antolatu du 10 urtetik gorako herritarrentzat. Ikastaroa uztailearen 3tik 7ra bitartean izango da, 10:00etatik 12:00etara, eta 18 euro ordaindu beharko dira. Izena emateko 943 67 15 44 telefono zenbakira hots egin beharko da.

IBARRA ▶

Immersoko bidaietan izen-ematea

Immersoko bidaietan parte hartzeko eskaerak egiteko epea gaur amaituko da. Opor egitasmoetan parte hartzeko eskaera egin nahi duenak inprimakiak udaletxean jaso ahal izango ditu, eta ondoren, 10.140 Posta-kutxa, 28.080 Madril helbidera bidali beharko ditu.

IBARRA ▶

'Mundu bete kolore' erakusketa Kultur Etxean

Angel Cuerdo tolosarraren *Mundu bete kolore* argazki erakusketa dago ikusgai bihar arte Benito Izagirre kultur etxean.

IBARRA ▶ JAIK

Ekitaldiz beterik, bihar hasiko dira Gazte Festak

'Herri bat Gaztetxe bat' lelopean, 36. edizioa da aurtengoa; adin eta pertsona guztiei zuzenduriko egitaraua izango da



Obrint Pas talde kataluniarrak bihar eskainiko du kontzertua Ibarrrako plazan. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Bihar arratsaldeko txupinazoa iragarriko du Gazte Festak hasi direla eta ekitaldiz beteriko asteburua izango dela Ibarrran. *Herri bat, Gaztetxe bat* leloarekin, 36. edizioa beteko dute aurten jai hauek. Izan ere, Gazte Asanbladakoek azaldu bezala, «1970. urtean elizaren inguruan mugitzen ziren gazteek eratuak festa horiek gaur egunera iritsiko zirela ez zuten pentsatu, ez eta gaur egungo egitaraua bezalakorik egotera iritsiko zenik ere; azken urteotan gure esku dago Gazte Festen antolakuntza, gazteok gaz-

teontzat egindako festak». Halaber, Udalaren «inongo laguntzarik gabe» eta herriaren azpiegiturak erabiliz jai eredu «desberdin» bat egiten saiatzen dira.

Hala, musikak garrantzi berezia izan ohi du urtero Gazte Festetan, eta aurtengoa ere agerian geratzen da hori; izan ere, Obrint Pas, Betagarri, Drindots eta Habeas Corpus bezalako taldeen doinuak entzuteko aukera izango da. Musikak pisu handia izaten duen bezala, aniztasunari ere garrantzia ematen diote Gazte Asanbladakoek; «adin zein pertsona desberdintzako moduko egita-

raua egiten saiatzen gara». Horregatik, Mus Txapelketa, dantzariak, txokolata, haurrentzako ikuskizuna eta tortilada bezalakoek ez dute hutsik egiten. Egitaraua osatzeko orduan, gaur egungo berrikuntzak sartzen ere saiatzen dira: grafiti pintaketa, bertso-poteoa, break-dance... Bestalde, aipatu ekitaldiak doan izango direla, Mus Txapelketa —10 euro bikoteko— eta Gazte Bazkaria —txartelak 5 eurotan— izan ezik.

Ibarrrako Gazte Asanbladak festa hauetan parte hartzera gonbidatu nahi ditu herritar guztiak.

GAZTE FESTAK ▶ EGITARAUA

BIHAR

19:30. Txupinazoa, jaiak hasiera emateko.
19:45. Batukadarekin poteoa plazatik.
20:30. Grafiti pintaketa eta Break Dance erakustaldia Gaztekearen kanpoaldean, SGC CREWeko jendearekin.
22:00. Barrikotea Gaztekean (sagartoa Gaztekearen esku, eta bokata norberak eraman beharko du).
23:30. Apustua plazan.
24:00. Kontzertuak plazan:

Obrint Pas eta Betagarri. Tarteant, ekitaldia.

ETZI

16:30. Mus Txapelketa Sendi Ekintzan.
17:00. Marsel magoa plazan.
17:30. Sendi Ekintzaren eskutik txokolata eta tortilada Gazte Asanbladaren bosnan.
18:30. Alurr Dantza Eskolaren erakustaldia plazan.
19:30. Bertso poteoa Xabier Silveira, Fredi Paia eta Jokin Urangarekin.

23:00. Drindots taldearekin dantzaldia plazan. Gauean zehar, Gas taldea ibiliko da kalea animatzen.

IGANDEA

08:00-14:00. Gaupaseroen poteoa.
14:30. Gazte bazkaria Xepla elkartean (txartelak aurrez salgai, Sendi Ekintzan eta Atarin).
17:30. Minimoto zirkuitoa.
21:30. Kontzertua Gaztekean: Habeas Corpus.

GUTUN@K ▶

Agustin Rekalde ez da lapurra

Agustin Rekalde ez da lapurra; Agustin Rekaldek Araxes paper lantegiaren ardua hartu besterik ez zuen egin, azken 20 urte hauetan oso gaizki zegoena. Ez du, ordea, aurrera ateratzea lortu. Hori da guztia. Hortaz, ez dio inori ezer lapurtu; alderantzizkoa, gehiegi galdu du.

Amorrua, mina, ezintasuna eta lanpostua galtzen duenaren etsipena ondo baino hobeto ulertzen badituzte, ez dago arrazoirik ez eta esku-biderik ere, Agustinen aurka gertatzen ari den akterkeria honetarako; izan ere, Tolosa, Orio, Getaria eta beste haren argazkiz bete dituzte, irain zakarrak eta film beldurgarrietako panpin urkatuak dituztela. Horrela ezin dira lantegiak ireki. Neurri horiek erabili, haurrak beldurtu eta hala merezi ez duten pertsonak mindu besterik ez dira egiten; betiere, atzera egin ezina izango dena.

IXABEL REKALDE ▶ TOLOSA

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Orea. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ARESO ▶ HEZKUNTZA

Gobernuak irakasle bat gutxiago jarri nahi du datorren kurtsoan

Aresoko eskolako Kontseiluak erabakia ez du ontzat eman, eskolako hezkuntza kalitatea «arriskuan» legokeelako

JAIONE ASTIBIA

Aresoko eskolari, besteak beste, hurrengo ikasturtean irakasle bat gutxiago izanen dutela jakinarazi diote Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentutik. Eta horren aurrean bertako eskolak bere eza-dostasuna agertu dio, neurri horiekin «kalitatea bazterrean geratzeko arriskua» ikusten duelako.

Hitzari aditzera eman diotenez, lehengo hilaren 17an jakin zuten Aresoko eskolan, ikasgarriak igorritako eskutitz baten bidez, 06-07 ikasturtean bi irakaslerekin geldituko zirela; alegia, bi lanaldi osoko irakasleekin batera. «Orain arte izan duten lanaldi erdiko hirugarren irakaslea kendu» eta «horren lana espezialistek erantsi» zieten: «Orain arte hiru irakasle ginen, eta espezialistekin batera, hiru gela egin eta ordutegia osatuta genuen», azaldu dute. Egoera berri horretan, «lanaldi erdiko hirugarren irakasle hori kendu eta ingelerako espezialistak bere 9 saio eta laguntzale gisa 14 egin beharko zituzkeen», zehaztu dute. Erabaki hori ez zitzaizen egoki iruditu eskolan, eta hala jakinarazi omen zieten arduraduenari.

Geroztik, ordea, berriz ere beste eskutitz baten bidez eskakizunak onartu ez baina murriztu egin dizkietela jakin dute. Azken berrien ariora, «Haur Hezkuntzarako tutore bat, Lehen Hezkuntzarako, beste bat eta ingelerakoarentzat bere 9 saioez gain, beste 5 bakarra» onartu dituzte: «La-



21 ikasle —atzo atseden garaian jostatzen— ditu Aresoko eskolak. J. A.

naldi erdiko irakaslea kendu eta laguntza saioak 14tik 5era jaitzi. Hori da egin dutena. Arzoa orokorra da eta modu berean hezkuntzan ere: baliabideei dagokienez alde guztietan murrizketak egiten ari dira. Gurean, kalitate plan bat ezarri zuten, baina batetik autonomia gutxiago utzi eta bestetik baliabideak murriztuz, nola bete daiteke?» galdetzen zuten.

Kalitatea ezin bermatu

Eskolan argi ikusten dute murrizketa horiek kalterako direla. «Hiru talde ziren bitan biltzea» dakarrela arrazoitu dute, eta ondorioz «Lehen Hezkuntzako 6 mailako ikasleak gela berean bilduta, dinamika berezituak ezin eramanez, hainbestetan exijitzen duten kalitatea bazterrean» gelditzen dela; era berean, ingelerako irakasleari laguntzarako sasioak gehitzean ere, «bere programatik at» gelditi daitezkeelako. Gainera,

heldu diren urteetako aurreikuspenei begira, «9-10 ikasle gehiagorekin eskola handitzea espero» dutenean «baliabideak berriz murriztuz doaz», zioten.

Horrela, «eskola txikiarentzat araudi berezitu» aldarrikatu dute: «Eskola handia izan, tiki-ia izan, arautegi berdina dago denentzat eta ezin da», esan dute.

Eskolan ez ezik herrian ere neurri hauek atzera botatzeko eskatuz hainbat ekimen egiten ari dira. Azaldu dutenez, «eskola bera, gurasoak eta Udala biltzen dituen Kontseiluak eskaera bideratuko dio Nafarroako Gobernuari»; Udalerako mozioa prest dute; eta herrian sinadura bilketa egitekoak dira.

«Herrietan baliabideak eta zerbitzuak gutxitzen badira, bertako bizimoduak ezin du jarraitu», baieztatu dute, herri osoarengan duen eragina azaltzerakoan.

ARESO ▶ AISIA

Irteera antolatu dute nahi duen guztiarentzat

Hilaren 23an, Xabier aldeko hainbat tokira joanen dira; garraioa herriak ordainduko du

ERREDAKZIOA

Datorren astebururako egun osorako irteera antolatu dute Aresotik, joan nahi duten herritar guztientzat: hilaren 23an Nafarroako Xabier aldeko hainbat toki ikusiz igaroko dute eguna.

09:00etan aterako dira Plaza Zaharretik autobusez, 11:00etarako Xabierren izateko moduan, han meza entzuteko. Ondoren gaztelua ikusiko dute. Bazkalarrekoa, 13:00ak aldera, Irunberriko Aspea arandegia bisitatu eta hortxe egingen dute, ardoak dastatuz batera. Hirubide hotelean bazkaltzekoak dira.

Arratsaldea, berriz, ibilaldi- txoak egiteko baliatuko dute: 16:00etan Irunberriko Arroilera joanen dira, bertako paraje ikusgarriez gozatzera. Eta handik, Sos del Rey Catolico hiribildura joanen dira, Erdi Aroko garaietako herri horretako aparteko kaleetan eta txokoetan barrena ibiltzera eta ikustera.

Jakinarazi dutenez, autobusa herriak ordainduko du guztiarentzat; eta jubilatuei bazkaria ere bai. Irteerara joan nahi duenak heldu den astelehena baino lehen eman behar du izena, Udal idazkaritzan edo parrokiara deituta, alegia, 948 51 00 80 zenbakira.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Zuzendaritza batzorde berria Aurrerarako

Ostiralean egingen dute elkarteko batzarra; bazkideei parte hartzeko eskaera egin diete

J. ASTIBIA

Zuzendaritza batzorde berria aukeratzeko batzarra deitu du Aurrera elkarteak. Etzi egingen dute, elkarteko egoitzan bertan, 20:00etan eta 20:30ean, lehen eta bigarren deialdian.

Bi urtetik behin aukeratzeko dute elkarteko junta. 2004an osatu zen orain aurrekoa eta aurten berritzea egokitzen zaie. Aurrera elkarteak 300 bazkide baino gehiago dituelarik, horiei guztiei bertan parte hartzeko deia egin diete, ezinbestean. Izan ere, batzor-



Aurrera elkarte, kanpotik. J. A.

derik eratuko ez balitz, «Aurrerak martxan dituen ekimen guztiak bere horretan» geldituzko arriskua omen dago.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko ekainaren 15a, osteguna ▶ IV. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alza, Arretxola, Anesto, Anso, Asteasu, Beldarrin, Belantza, Berrog, Berrovi, Etxebarri, Gortzi, Irujo, Izoztegieta, Irujo, Leaburu, Leitza, Lizartza, Osea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurerria, Kultura Saila

ELKARREKIBO

GAURKO EGURALDIA



goizez arratsaldez



beroena

22

hotzena

17



goizez arratsaldez



goizez arratsaldez



goizez arratsaldez



goizez arratsaldez



goizez arratsaldez



goizez arratsaldez



goizez arratsaldez



goizez arratsaldez



goizez arratsaldez



goizez arratsaldez



goizez arratsaldez



goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zaintzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Baigorri-Bidarrai mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek iganderako. Lauordena mendia igoko dute. 6 orduko ibilaldia da. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5. 943 65 27 89).
Tolosa. Larunbatean Iruñean izango den konponbidearen aldeko manifestaziora joateko autobusa antolatu du Tolosako Batasunak. 16:30ean abiatuko da, San Frantziskotik. Izena emateko zerrendak Intxurre herriko tabernan eta Rakun daude.
Tolosaldea. Galtzaundi Euskara Taldeak autobusak antolatu ditu hilaren 18an Armentian izango den Araba Euskaraz-era joateko. Izen-ematea, egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6).

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itsasoren margolanak. Hilaren 21a arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan ikusgai.
Ibarra. *Mundu bete kolore.* Angel Cuerdo abenturazale tolosarraren argazki erakusketa. Bihar arte, Benito Izagurre kultur etxean.
Tolosa. *Aterpeak.* Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketa. Uztailaren 1a arte bisita daiteke, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Kultur tailerretako ikasleen erakusketa. Uztailaren 1a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak. Hilabete osoan, Saikin tabernan.
Tolosa. Yolanda Artolaren margolanak, Fronton kafetegian.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzon.

HITZALDIAK

Ikaztegieta. *Loa: adineko pertsonen ondo lo egin beharra.* 17:00etan, liburutegian.
Orendain. *Noela eraman artikulazioen higadura.* 16:00etan, Erretore etxean.

JAIK

Anoeta. Udalaren



Laskorain Ikastolakoentzat Euskadiko Txapelketa

TOLOSA ▶ Eskola Kiroleko denboraldia amaitu da. Eskualde mailan jokatu ondoren, Laskorain Ikastolako 11 talde Gipuzkoa mailan jokatzeko sailkatuak izan ziren: eskubaloiko, atletismoko, pilotako eta boleiboleko talde bana, saskibaloiko bi talde eta areto futboleko bost talde. Hauetatik,

pilotako infantil mutilek eta areto futboleko kadete neskek eta infantil mutilek Gipuzkoako lehen postua eskuratu zuten. Infantil mutilek Tolosan bertan jokatuak Euskadiko Txapelketa irabazi zuten, gainera. Argazkian ageri dira Euskadiko txapeldunak, Iker Sanchezen gidaritzapean. HITZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Haritz (Altzo).
 Gaur 5 urte.
 Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Naia Gabirondo Gorostidi (Gaztelu). 5 urte.
 Familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea

egitarauan, Umeen Eguna: goiz eta arratsalde, ume eta gaztekoentzako parkea, 17:30ean, buruhandiak eta erraldiak; 19:00etan, Loatzoren kontzertua; 23:00etan, Beñat eta Maider trikitilariak. Herri Borondatearen Aldeko Jaietan, Mozorro Eguna: 16:00etan, haurrentzako jolasak; 17:00etan, txokolatea; 18:00etan, Patxin eta Potxin; ondoren, mozorroen desfilea; 20:00etan, patata tortila lehiaketa; 21:00etan, sahieski jatea; 23:30an, kontzertua: Jone eta Desordutan.

ZINE-KLUBA

Tolosa. *Los cuatrocientos golpes.* 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leitza, Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, albisteak, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari.*
 21:00-23:00. *Gau bero.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

SANJOANAK 2006

Tolosako ZEZEN PLAZA

EKAINAK JUNIO 17 ARRATSALDEKO 6 TARDIA
ZEZENKETA EXTRAORDINARIA - CORRIDA DE TOROS
 6 ZEZEN TOROS de la Ganadería de "Sancho Pansa"
 D. ISAIAS Y D. TULIO VAZQUEZ
 PARA LOS MATADORES:
DENIS LORE
SANCHEZ VARA
IKER JAVIER LARA

EKAINAK JUNIO 25 ARRATSALDEKO 6 TARDIA
ZEZENKETA MONUMENTAL - CORRIDA DE TOROS
 6 ZEZEN TOROS de la Ganadería de "Sancho Pansa"
 ALCURRUEN
 PARA LOS MATADORES:
CESAR RINCON
JAVIER CONDE
SEBASTIAN CASTELLA

Jaialdi egunetan Tolosako Zezen Plazan bakarrik salduko dira, 10:00etatik aurrera. Abonoak berritzeko edota berriak egiteko Tolosako Zezen plazan ekainaren 14tik 16ra 11etatik 14etara eta 17etatik 19etara.

SARRERAK SALGAI

TOLOSA
 Bar "Asteasuarrak" 943 673 186
 Café Bar "Frontón" 943 651 470
 Asador "Orue" 943 651 911
 Bar "Cantábrico" 943 653 987
 Bar "66" 943 671 937

SAN SEBASTIAN
 Bar "Antonio" 943 429 815 c/ Bergara
 Bar "La Espiga" 943 421 423 c/ San Marcial

BAIONA Office de Turismo
 0033 559 460 146 Place des Basques

ABONOAK SALGAI %10 MERKEAGO

Argibideak eta erreserbak:
 943 64 16 66
 659 67 65 70
 10:00-13:00 - 17:00-21:00



HITZA / NEREA URBIZU

KUKUAK... HERRITARREI, JAI!

Anoetarrak herriko jaietan bete-betean murgildurik daude; gaurtik igandera bitarte oraindik ere hamaika ekitaldi izango dituzte aukeran, gozamenerako aitzaki

...ETA GERATZEN DIRENAK

Iragan larunbatean ekin zieten Anoetan herriko jaiari; dagoeneko hamaika ekitaldiz gozatu dute herritarrek nahiz bisitariek, baina oraindik ere beste hainbat dituzte aurretik

Anoetarrak herriko jaien erdialdera heldu badira ere, dagoen egunotan izango dute ekitaldi andanarekin gozatzeko aukera. Musika, umeentzako jolasak, gazteentzako ekitaldiak, bazkari-afariak... denetik, denentzat. Hona, egunegun, Udalaren eta Herri Borondatearen Aldeko jaien egitarauak:

EGITARAU OFIZIALA GAUR: KORPUS UMEEN EGUNA

Barraken prezioa merkeagoa.
10:30etik 13:30era eta 15:00etatik 17:00etara. Ume eta gazteentzako parkea.
17:30ean. Buruhandiak eta erraldoiak plazan.
19:00etan. Loatzokoen kontzertua.
23:00. Beñat eta Maider trikitilariak.

BIHAR

11:00etan. Herriko jubilatuen arteko Toka Txapelketa plazan, Alkartasuna elkarteak antolatutik.
17:30ean. Buruhandiak eta erraldoiak plazan.
19:00etan. Ume eta helduen *play-back*a, plazan.
23:00etan. Dantzaldia Beste bat erromeria taldearen eskutik.

ETZI

11:00etan. Gorritiren Festibala: zezentxoak eta ponyak, plazan.
12:15ean. Buruhandi eta erraldoien kalejira txistulariekin.
12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era. Herriko artisen eta eskulanetako taldekoen lanen erakusketa.
15:30ean: Mus Txapelketa herrikoei zuzenduta, Ateagak antolatutik.
17:30ean: Txokolate jatea, Ateaga elkarteak antolatutik.
18:00etan: Haurrentzako ikuskizuna: *Sanbhu*. Pailazoak, zirkoa eta antzerkia...



Gazteen eta helduen arteko demak jende asko biltzen du. HITZA



Etzeko txikiak ere izaten dute euren tartea jaietan. IMANOL GARCIA

19:00etan: Tolosaldea bailarako Bakailoa saltza berdean VIII. Lehiaketa, Ateaga elkarteak antolatuta.
20:30ean: Herri afaria pilotalekuan, Mikel Mendizabal eta Iñaki Murua bertsulariekin.
23:00etan: Kontzertua plazan Tahuma taldearen eskutik: saltza, merenge, tangoak, balsak....
00:30ean: Disko festa plazan.

IGANDEA 18

11:00etan. Txistulariekin kalejira.
11:30ean. Meza Nagusia. Ondoren, Eresargi abesbatzaren emanaldia.
12:00etan. Sagardo dastaketa, sagardoan egositako txorizoarekin, Ateaga elkarteak antolatuta.
12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era. Herriko artistek eta eskulanetako taldeak eginiko lanen erakusketa.
17:30ean. Herri kirolak plazan.
19:30ean. Ibarrako Alurr dantza taldearen emanaldia, plazan.

EKAINAREN 23A, OSTIRALA: SAN JOAN BEZPERA

18:00etan. Buruhandi eta erraldoien kalejira txistulariekin.
19:00etan. Udalak ardoa eta gailetak eskainiko ditu udaltxeko arkupeetan.
20:30ean. Herri afaria herriko plazan.
22:45ean. Suaren inguruan San Joan kantuak, San Joan zortziko dantza eta erromeria: Markos Landa aita-semeak ahosoinuarekin.

EKAINAREN 24A,

**LARUNBATA:
SAN JOAN EGUNA**
11:00etan. Txistularien kalejira.
12:00etan. Meza jubilatuei eskainia. Ondoren, Udala dantzari eta txistulariak ariko dira herriko jubilatuen omenez.

13:30ean. Herriko jubilatua eta pentsiodunen bazkaria eta dantzaldia.

HERRI BORONDATEAREN ALDEKO JAIEN EGITARAUA GAUR: MOZORRO EGUNA

16:00etan. Ume jolasak.
17:00etan. Txokolate eta bizkotxoaren banaketa.
18:00etan. Patxin eta Patxin pailazoaren emanaldia. Ondoren, mozorroren desfilea herrian zehar buruhandi eta txistulariek alaiturik.
20:00etan. Patata tortilla lehiaketa.
21:00etan. Kostila jatea. Afal ostean AHTren aurkako DVDaren proiektzioa.
23:30ean. Kontzertua Jone eta Desordutan taldearen eskutik.

BIHAR

19:00etan. Sagardo dastaketa, trikitilari eta bertsulariekin.
20:30ean. Bertso afaria Iker Zubeldia, Amaia Agirre eta Iban Urdangarierekin.
00:00etan. Manifestazioa *EAJ/EA, anoetarren eskubideak errespetatu* lelopean. Ondoren, kontzertua, Sexty Sexer eta Izeba Pilarren llobak taldeekin.

ETZI: GAZTEEN EGUNA

18:00etan. Gazteen kalejira.
21:00etan. Herri afaria.
23:30ean. Gazteen dantza emanaldia, herriko plazan.
00:00etan. Kontzertua Skamatxin eta beste talde baten eskutik.

IGANDEA 18

13:00etan. *EHNA egin eta erabili* ekitaldia: dantzariak, txistulariak, txalapartariak... eta EHNA tramitatzeko aukera. Hemen egingo da zozketa.
21:00etan. Afaria.
23:00etan. Umoristen emanaldia. Ondoren, musika herriko disko jartzaileen eskutik.

Izarti
txokolategia
Sortalde, 1 • ANOETA
Tel.: 943 65 19 93

Festak ondo pasa!
ANOETAKO HERRI IKASTOLA
Ergoien,5 • Tel.: 943 65 29 32
anoeta@ikastola.net

Herriko plaza, 2 - ANOETA
Tel.: 943 651 194

SAL TSA ETA SAL TSA ARTEAN

Zortzigarren urtea beteko du aurten Bakailaoa Saltsa Berdean Lehiaketak; eskualdeko 15 bikote ariko dira etzi, plazan, platera hobekien nork prestatu



Jende ugari izaten da urtero Ateaga elkarteak antolatutako sagardo dastaketan. IMANOL GARCIA

Anoetako jaien egitarau ofizialaren baitan, azpimarratzekoa da dagoeneko ohiko bilakatu den Bakailaoa Saltsa Berdean Lehiaketa. Herriko Ateaga elkarteak antolatutako eskualde mailako ekitaldi berezi honek zortzigarren urtea beteko du aurten.

Etzi izango da lehiaketa eguna, eta urtero hutsik egin gabe izaten diren zizurkil darrak. Anoetako jubilatutako edota Berrobi eta Hernialdeko parte-hartzaileak bertan espero dituzte antolatzaileek. Guztira, 15 sukaldari ariko dira bikoteka plazan bakailaoa prestatzen 40 minutuz. Amaitutakoan epaimahaia osatzen duten 5 kideak jarriko dira lanean platera hobekien prestatu duenari saria emateko helburuz. Ondoren, herritarrek ere izango dute bakailaoa dastatzeko aukera sagardoarekin lagunduta.

Bi hilabete lehenago hasten dira lanean Ateaga elkarteak dena behar bezala irteteko; «merezki du, oso polita izaten baita eta jende asko gerturatzeko baita».

BAKAILAO LEHIAKETA ▶

Zortzigarren edizioa beteko du aurten Ateaga elkarteak antolatzen duen Bakailaoa Saltsa Berdean Lehiaketak.

DATUAK

Parte-hartzaileak. 15 bikotera mugatuta dago, emakumeek nahiz gizonezkoek eman dezakete izena, eta 18 urte izatea beharrezkoa da.

Materiala. Ateaga elkarteak jarriko du, bai sukaldarien aritzeko beharrezko tresnak, bai eta jakiak ere.

Denbora. 40 minutu izango dituzte sukaldariek.

Epaimahaia. Fermin Garmendia, Jose Manuel San Sebastian, Joakin Calleja, Aitor Riaño eta Alonso Fernandez.

Sariak. Lehendabizikoak txapela, 2 trofeo eta 150 euro; bigarrenak 2 trofeo eta 90 euro; hirugarrenak trofea eta 60 euro eta laugarrenak trofea jasoko dituzte. Prestaketari emango diote saria, eta parte-hartzaile nagusienari eta gazteenari ere bai.

Guztien gozamenerako

Bakailao Lehiaketaz gain, Mus Txapelketa, txokolate jatea eta sagardo dastaketa ere antolatzen ditu Ateaga elkarteak

Bakailaoa Saltsa Berdean Lehiaketa ezezik, etziraiko eta iganderako beste hainbat ekitaldi prestatu ditu Anoetako Ateaga elkarteak, Mus Txapelketa, Txokolate jatea eta Sagardo dastaketa, alegia.

Mus Txapelketa, esaterako, elkarteak bere sorreratik, dituen 28 urtetan, antolatu du. Herriko 40 bikote inguruk hartzen dute parte eta lau onenentzat banatzen dituzte sariak: lehenengoak txapela, 2 trofeo eta arkumea; bigarrenak 2 kilo txuleta eta trofea; hirugarrenak 2 ardo botila eta trofea; eta laugarrenak trofea eta ardo botila eramango dituzte.

Txapelketa etzi arratsaldean izango da, gaztetxoei zuzenduriko txokolate jatearen moduan.

Bestalde, igande eguerdian antolatzen duten sagardo dastaketa «oso polita eta berezia» izaten dela diote Ateagakoei. Gaztañaga, Zabala, Etxeberria, Aburuza, Isastegi, Anoetako Sarasola eta Astigarragako Sa-

rasola sagardotegietako sagardo dastatzeko aukera izango da aurten, eta horretarako euro baten truke edalontzi bat erosi beharko da. Herritarrek nahiz kanpotik etorritakoek ederki asetzeko aukera izango dute; izan ere, antolatzaileek sagardoarekin batera egositako txorizoa ere jarriko dute aukeran.



ANOETAKO UDALA



Anoetako jai zoriontsuak opa dizkizuegu herritar orori eta inguratzen zareten guztioi!

Herriko plaza z/g
Tel.: 943 65 12 00
Faxa: 943 65 03 53
ANOETA



Grupo GEM TALDEA



Giuto OPEL
902 345 123
ELGOIBAR ESBAR BERGARA
ARRASATE OLABERRIA ANOETA
www.opel.es



Giuto CHEVROLET
902 345 225
ESBAR OLABERRIA
www.chevrolet.es



Giuto SAAB
943 763 346
BERGARA
www.saab.es



mendaola HYUNDAI
902 345 335
ELGOIBAR DONOSTIA IRUN
LAGARTE ARRASATE TOLOSA BEASAIN
www.hyundai.es

ONDO PASA JAIK

MIKEL LARRION, ALAZNE RUIZ, EGOITZ LUISA, GORKA OTSOA-AIZPURUA ▶ HERRI BORONDATEAREN ALDEKO JAIEN ANTOLATZAILEAK

«Herritik herriarentzat antolatutako jaiak dira, partaidetza altuarekin»

Hiru urtetik hona Herri Borondatearen Aldeko Jaiak antolatzen dituzte



Gaur umetxoak izango dira protagonista, eta Potxin eta Patxin pailazoen emanaldiekin gozatuko dute. HITZA

Soka Dantza, herri antzerkia... Oso harrera ona izan zuten guztiek ere, eta horrela heldu ziren herriko jaiak.

Eta orduan otu zitzaizuen jaietan ere zerbait egitea.

Hori da. Lehenik eta behin garbi utzi nahi dugu gu garaile lehen interesatuak jai hauek behar ez izateko eta gure prestutasuna ere azaldu dugu; hala ere, ez dugu erantzunik jaso Udalaren partetik. Hala, festa alternatiboak egin genituen, partaidetza ikaragarria izan zen eta urte zehar, gainera, gora doa. Gehiena autogestionatu egiten dugu.

Lan handia egingo duzue.

Hiru hilabete lehenago hasten gara antolaketarekin. Jende asko gaude atzean lanean, eta hori beti da eskertzekoa. Baita diruz laguntzen duten enpresen, boletok erosten dutenen eta postuetan lanean dihardutenen laguntza ere.

Hirugarren urtea bete duzue. Azpimarratzeko ekitaldirik?

Herri antzerkia, gazteek zaharren aurkako sega apustua, herriko artisau eta baserritarren azoka, kontzertuak, umeentzat jolas eta pailazoak, erromeria, bertso afaria... Batzuk aurreko Udaletik jaso ditugu, eta beste batzuk duela hiru urtetik hona egiten ditugu.

Adin guztietako herritarrak aintzat hartzen saiatzen zarete, beraz.

Gure helburua herritarren partaidetza bultzatzea da eta herritik herritarrentzat eginko festak izatea; hori dela eta, era askotariko ekintzak antolatzen ditugu.

2004an Anoetarrok Auzolanean herri plataformak, AHT Gelditu! Elkarlanak, Anoetako Gazte Asanbladak eta Segi-k lehen aldiz festa alternatiboak antolatu zituzten. «Arrakasta eta herri guztiaren partaidetza altua» ikusita, urtebete beranduago Herri Borondatearen Aldeko Jaiak izena hartu zuten. Mikel Larrion, Alazne Ruiz, Egoitz Luisa eta Gorka Otsa-Aizpurua, antolatzaileetako batzuk, HITZAREKIN aritu dira solasean festa hauen nondik norakoan gainean.

Nola ekin zenioten Herri Borondatearen Aldeko Kaiak antolatzeari?

Azken hauteskundeetan Anoetarrok Auzolanean herri plataformak 4 zinegotzi lortu zituen, baina 5 zinegotzi lortu zituen PNV-EA koalizioa Udalaren jaun eta jabe egin zen, 9 zinegotziak bere eginez eta beraien proposamenak aurrera eramanez. Honen aurrean herriko hainbat eragile elkartu eta Udalak utziriko hutsune nabarmen eta garrantzitsuak salatu eta, bide batez, aurreko Udalak hasitako kultur dinamika martxan jartzen hasi ginen, udaletik kanpo.

Zeintzuk dira ekitaldi horiek?

dute. Aurretik, beti ere, txokolatea eta bizkotxoak banatuko dituzte, «gatzetxoen tripak gozatzeko».

Eta, ondoren, disfrazen desfilea egingo dute («ez hain gatzetxoek»), buruhandiek eta txistulariek alaiturik. Musika ere izango du bere tartea. Jorneren eta Desordutan taldearen eskutik. «Denetik denentzat», beraz. ◀

Gaur, Mozorroen Eguna

Herria kolorez janzten den egun honetan umeek ere protagonismoa hartzen dute. Gazte koadrila guztiek txantxo giro ederrean igarotzen dute haurren eguna.

Duela hiru urte, festa alternatiboekin batera, ekin zioten egun hau antolatzeari. «Jendearen partaidetza» gero eta handiagoa da eta ekitaldiak ere gero eta anitzagoak, arra-

tsaldeko lehen orduetan hasten baita festa gaur.

Antolatzaileek bereiztat jo dute herriko txikitxoentzat antolatzen den emanaldiak duen arrakasta. «Laz pailazoak izan ziren eta Txan magoa, eta plaza lepo zegoen» Hala, aurreko urteetako betetzea espero dute arduradunek. Horretarako, Potxin eta Pitxin pailazoek emanaldia eskainiko

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

- ▶ egunero 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz
- ▶ uneoro informazioa eskura www.tolosaldekohitza.info



txartel berriarekin abantailak!
beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste



KONTU KORRONTE bidez ordainduaz
EROSOAGOA eta 2 ZATITAN
ORDAINTZEKO AUKERA

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

egunean 0,18 zentimoren truke etxean



Hil honetan aurkitu prezio apartak:

Citroën C5
17.300 €
Ere gaurerako C5 1.600 €
15.200 €
15.200 €



Citroën Axara Picasso
12.200 €
Ere gaurerako C5 1.600 €
10.600 €

Citroën C1
8.100 €
Ere gaurerako C1 1.600 €
6.500 €



Citroën C3
8.700 €
Ere gaurerako C3 1.600 €
7.100 €

Citroën C3
9.000 €
Ere gaurerako C3 1.600 €
7.400 €

100-150 kilometroko C3 (100-150 kilometroko motorrekin)

IROVI, S.A. Citroën Konzesionario Ofiziala
Industrialdea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

CITROËN